

# mamba -beat



**Mamba Beat** taldea Bilbon sortu zen 2006an. Mamba Beat taldearen bizkarrezurra lau musikarik osatzen dute: Mikel Piris (**Cherry Boppers, Doctor Deseo**), Miguel Comas (**Kubako Garaje H**), Rafa Aceves (**Txuma Murugarren**) eta Igor Imaz (**Lovercraft**). Mamba Beat taldeak haize berriak ekarri eta erakutsi nahi dizkio Euskal Herrian egiten den musikari, nahiz eta ez diren erabat aintzindari. Ze inportatzaile! Dantzarako musika egitera ausartu dira lotsarik gabe. Mamba Beat taldearen korapilo nagusia dantzarekin askatzen da, eta indar bero, busti eta gogoangarrienak dantzarako eta alaitasunerako dituzte, zuzenekoetan jendea errotzeko erritmo biziarekin, gerriaren mugimenduetarekin, izerdiaren sententzietarekin, zirrara maitegarriekin eta entzulearen sentipenekin.

Mamba Beat taldearen bigarren diskoak "Energia" du izenburua. Estraineko diskoak Gaztelupe diskoetxearekin argitaratu zuten 2007an. Mamba Beat, orain, disko eta soinu berriekin dator. **Bomboajazz** eta **Euridia Estudioetan** grabatu eta ekoitzi du Mamba Beat taldeak berak 2009ko urtarrila, otsaila, martxo eta apirilean. Nahasketa eta masterizazioa **Ibón Larruzea** soinu ingeniariak egin ditu Euridia Estudioetan. Beti bezala, hainbat musikari laguntzaile bildu ditu estudioan, diskoari nortasun eta bizitasun aberatsago bat emateko; hori dira, besteak beste, **Gari Badiola (Ska-p)**, tronboiarekin, eta **Txema Aspiltze**, gitarra eta soinu teknikaria, taldekideetat har daitezke biak. **Virginia de la Casa (Orthophonk)** abeslariak bere ahots lodi eta goxoa sartu du "Energia xurgatzen", "Fight the mad" eta "Mambadanz 79" abestietan. **Doctor Deseo** taldeko **Raúl Lomas** gitarrajotzaileak theremina jo du. **Angel Fernandez** saxo baritonoarekin dago. "Conga pa Celia" abestian rapeatzen **Manu Méndez Mendil "Asere"** dago, eta **Valerio** koru frantsesak egin ditu "Dancin' in Dijon" kantuan.

Mamba Beat taldeak oso izenburu adierazgarria jarri dio bigarren diskoari: "Energia". Mamba Beat taldeak energia guztia xurgatu nahi digu eta, aldi berean, energia basatiz kutxatu nahi gaitu, eta entzulearen barren-barrenak eraldatu, xede anitzarekin: ongi pasatu eta zorientatu izan musika entzuten eta dantzatzeko dugun bitartean. Musika egiteko makina biribila. Sentsazio mardulenak ateratzeko makina eta trebezia dago Mamba Beat taldearen inguruan. Hamar abesti eta hamaika erritmo ero, bero eta harro erro berberetik sortuak: dantzaren funtsa. Hamaika erritmo dantzaren goseak harrapatuak. Dantza-musikan osagarri franko sar daiteke; denetarik onar dezake, mugimendurako arnasa badu. Mamba Beat, hasteko, elektronika alorrean sartuko dugu; gero, acid-jazz erritmoen magalean, eta hortik aitzina, egundoko zoramen musikala: beltzen funkya housearekin nahastuta, disko-musika world-music txinpartez osatuta, saltsa kubatarra elektronikaren hatzamarretan, world-beat, baxua eta bateriaren kolpe trinkoak, mardulak dantza arinaren erara mugitzeko. Euskara, gaztelania eta ingelesa txukun eta jator uztartuta. Energiaren mailarik gorenera eramane du Mamba Beat taldeak euren festa eta hedonismoa. Buruak tente, burmuinak heze, hasi dantzan eta balantzan!

**Dantzarako musika, jaia, elektronika, erritmo alaiak acid-jazz ikuspuntutik begiratuta. Mamba Beat osagai anitzeko taldea.**

Bai, horrela da. House-funk fusioa deitzen diogu. Acid-jazzaren anaia gazte energikoa da, haren bertsio gaurkotua. Zehatzago esanda: elektro-house-funk-acid-jazz-latin-disco-ethnic-drum&bass. Baina erraz azaltzeko, dantzarako musika ezberdinak batzen dituen fusio alai eta dibertigarria da Mamba Beat taldea.

**Euskal Herria eta Kuba batzen dira Mamba Beat taldean, baita zerbait gehiago ere...**

Fusioa musikatik haratago eramaten dugu, kulturen arteko mestizajera hain zuzen ere. Izan ere, gu geu mestizoak izanik, eta gure ingurua jadanik horrela denez, interakzio horretan murgilduta gaude. Bilboko San Frantzisko kalean arabiera, euskera, ingelesa, gaztelera, frantsesa... entzun daitezke, azentu ezberdinekin, erritmo ezberdinekin. Gure musikan ere antzeko zerbait gertatzen da.

**Unibertsoari begirada, espazioa, energia eta kapitalaren kalapita...**

XXI. mendeko gizarte zoro honetan bizi gara, estresarekin, presio ekonomikoekin, arazo sozialekin... Espiritua eta arima energiaren indarberritzeko errezetarik onenetariko bat, dantza egitea dela sinesten dugu. Burua, gorputza, natura, unibertsoa... dantza oreka positiboan egoteko bide ona da. Gure zuzenekoak errito terapeutikoak izatea bilatzen dugu.

**Mikel Piris:** ahotsa, saxoa, flauta, programazioak, samplerrak

**Miguel Comas:** baxua, programazioak, samplerrak, koroak

**Rafa Aceves:** pianoa, rhodes, teklatuak, ahotsa "Euskadi tropikala" eta "Dancin' in Dijon"

**Igor Imaz:** bateria, koroak.

**Andeka Marina:** perkusioak

**Ibon San Vicente:** tronpeta

ritxi aizpuru (2009ko maiatzaren 13an)